

Esp. Zkia.- KE-2024-026

E.E.- 2024-00347

397/2024 ALKATETZA DEKRETUA:

Larrabetzuko Udaletxean, 2024ko irailaren 16an.

OINARRIA: 2024ko otsailaren 6an BAOean 2024 ekitaldirako Larrabetzuko Udal Aurrekontu Orokorraren behin betiko onarpena argitaratu egin zen. Horretan Larrabetzuko Uritarra Futbol Taldearen, G-95232872 IFK zenbakidunaren, aldeko dirulaguntza zuzen nominatibo bat jasotzen da aurrekontuaren aurrekontu partida konkretuan (3423-48100). Hau horrela elkarteak 2024ko bagilaren 18an udal sarrera erregistroan E202402151 inskripzio zenbakiarekin dirulaguntzaren eskaria aurkeztu zuen.

OINARRIA: 2024ko irailaren 16ko datarekin udal kontu-hartzaitzak txostena egin zuen.

OINARRIA: Honako honeetan xedatutakoa: Diru-laguntzen 38/2003 Lege orokorraren 22.2.a) artikuluan, 887/2006 Errege Dekretuak onetsitako Diru-laguntzen Araudi Orokorraren 65. Artikuluan.

Honen bidez, Tokiko Araubidearen Oinarriak arautzen dauzan apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21. artikuluan ezarritakoaren arabera, HAU EBATZI DOT:

LEHENENGOA.- Larrabetzuko Uritarra Futbol Taldeari (IFK: G-95232872); 20.000,00 euroko diru-laguntzea emongo jako, 3423-48100 aurrekontuaren aurrekontu-partidea zordunduta. Dirulaguntza ematen da honako helburu hauek sustatzeko:

- Eskola-futbolaren antolakuntza Bizkaiko eskola-kirolaren arautegia betetzen.
- Eskola-kirolaren baitan euskararen sustapena, operadore ezberdinak esukaldunak izango direlarik.
- Udal futbol-zelaiaren mantenimendua eta kudeaketa egokia, udalak ezartzen dituen mugekin. Futbol taldeak denboraldiko epean honako ordutegia izango du:
 - Astelehenetik ostiralera 16:45tik 22:00tara.
 - Asteburuetan partiduak jolasten duten bitartean.
 - Ordutegi horretatik kanpo taldeak ez du inolako erantzukizunik.
 - Instalazioaren irekiera eta itxiera futbol taldeari dagokio.
- Futbol zelaiaren instalazioen garbiketa..

Guzti hori Elkarteak aurkeztutako proiektuan jasotzen denari jarrituz.. Onuradunak jaso duen dirua diru-laguntzaren xedea betetzeak dakartzan gastuak ordaintzeko erabiliko du; ez beste ezein helbururako.

BIGARRENA.- Diru-laguntza 20.000,00 euro da, eta udalak emango du, oso-osorik, 3423-48100 aurrekontu-partidaren kontura. Ebazpen honen bitartez, diru-laguntzaren %100 ordaindu egingo da aurretiazko ordainketa bezala. Zenbateko horrek elkarteak aurreikusi duen jardueren %58,82 finantzatzen du.

HIRUGARRENA. Diru-laguntza bateragarria da berorren xedea betetzeko onuradunak lor zezakeen besteren batekin.

LAUGARRENA.- Hitzarmen honen xedea betetzeko jarduerak 2024 urtean zehar gauzatu behar dira, honen betearazpenerako azkeneko eguna 2024ko abenduaren 31a izanik.

BOSGARRENA.- Diru-laguntza justifikatzeko epe-muga 2025eko zezeilaren 28a dahori barne. Justifikazioa Dirulaguntzei buruzko zementiaren 17ko 38/2003 Legearen 30. artikulua jasotzen duenari jarraituz egin beharko da. Justifikatzeko, honako dokumentazioa aurkeztu behar da:

- Urteko jardueren gaineko deskripzio-memoria. Memoria honek, jardueren nagusien gaineko material grafikoa jaso beharko du. Egindako jardueren gaineko deskripzio-memoria horri jasotako jardueren ezberdinetako dokumentazio-justifikagarria (kartelak, ekitaldi programak etab...) gehituko zaio.
- Elkartearen urteko diru-sarrera eta gastu balantzea.
- Balantzean jasotako diru-sarreraren gaineko zerrenda zehaztua.
- Balantzean jasotako gastuen gaineko zerrenda zehaztua, memorian adierazitako jardueren ezberdinekin harremana duten gastuak.
- Aurkeztutako gastu-zerrenda justifikatzen duten faktura eta ordainagiriak. Gastuen akreditazioa gauzatu da fakturen bitartez eta froga izaera duten eta trafikiko juridiko-merkantileko edo administrazio-eragingarritasuna duten bestelako dokumentuen bitartez.
- Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin betebeharrak eguneraturik egotearen ziurtagiriak, Larrabetzuko Udalak hori konprobatzeko baimenik emon ezean. Baimenik ez bada eman nahi hori beren-beregi adierazi beharko da justifikazioarekin batera.
- Beste Administrazio Publikoetatik diru-laguntza batzuk jaso izanaren edo jaso ez izanaren inguruko erantzukizunpeko adierazpena.
- Ezarritako helburuak bete izan direnaren erantzukizunpeko adierazpena.

Justifikazio-kontua honi erantsitako aurrekontuan aurreikusitako zenbatekoa betetzen ez duenean, diru-laguntzaren zenbatekoa proportzio berdinean gutxitu egingo da. Hau horrela justifikatzen den %58,82a finantzatu da bakar bakarrik eta inoiz ere ez aurrekontu partidan zehazten den zenbatekoa baino gehiago. Kasu hori ematen denean derrigorrezko diru-bueltatze prozedura hasiko da.

SEIGARRENA.-Hitzarmen honetan ezartzen diren betebeharrak ez betetzea diru-laguntzaren diru-bueltatze prozedura gauzatu du eta dagozkion zehapenak jartzea eragingo du, DDLan xedatzen duenari jarraituz.

ZAZPIGARRENA.- Udal diruzaintzari ebazpen honen berri eman, beharrezkoak diren ordainketak egiteko eta beharrezkoak dituen ondorioak sortu ditzan.

ZORTZIGARRENA.- Ebazpen hau prozeduran interesdun diren guztiei jakinaraziko zaie.

BEDERATZIGARRENA.- Ebazpen honen barri emongo da Udalbatzeak egingo dauen hurrengo bilkuran.

Amaia Lekue Mezo
Alkatea

Nire aurrean,
Idazkaria